

Bulego Birtuala eta informaziorakoa
info@muface.es

Telefonoak: 91 273 99 50 / 91 273 49 99

Bulego Birtualeko ohiko ordutegia:
astelehenetik ostiralera: 9:00 – 18:00,
ostiraletan, 9:00 – 14:00.

Udako ordutegia
(ekainaren 16tik, irailaren 15era):
astelehenetik ostegunera, 8:30 – 14,30,
ostiraletan, 9:00 – 14:00.

Zure Zerbitzu Probintzian edo
hurbileneko Ordezko Bulegoan



www.muface.es



www.060.es



SEPA

EUROTAN ORDAINTZEKO EREMU BAKARRA

Herrialde
kodea

Kontrol
kodea

Banku-erakundea

Bulegoa

Kontrol
kodea

Kontuaren zenbakia

E S

X X

X X X X

X X X X

X X

X X X X X X X X X X

SEPA

EUROTAN ORDAINTZEKO EREMU BAKARRA

2014ko otsailaren 1etik aurrera, Espainian eta euroguneko gainerako herrialdeetan transferentziak eta helbideratzeak SEPA sistemaren arabera egingo dira. Ildo horretatik, MUFACEk dagoeneko egokitu ditu prozedura eta formulario guztiak SEPAREN arau berrietara.

Zer da SEPA?

SEPA Eurotan Ordaintzeko Eremu Bakarra edo, ingelesez, Single Euro Payments Area sistemak aukera ematen die SEPAN sartuta dauden herrialdeetako –Europar Batasuna osatzen duten 27 herrialdeetako eta Islandia, Liechtenstein, Norvegia, Suitza eta Monakoko– banku-transferentzien, helbideratzeen eta txartelen erabiltzaileei, herrialde horietako edozeinetan daudela ere, ordainketak eurotan egiteko, oinarritzko baldintza eta eskubide eta betebeharrak berberekin. Sistema honekin guztiz ezabatzen dira estatu barruko eta mugaz gaindiko ordainketen arteko aldeak.

Zertan eragiten die mutualistei?

Mutualistarentzat, MUFACERekin duen harremanean berrikuntza nagusia da, banku-kontuei buruzko formulario bat

betetzerakoan –batez ere prestazioren bat jasotzeko prozeduretan–, CCC kodearen ordean (kontu korrontearen kodearen ordean, alegia) IBAN kodea erraztu behar duela.

Zer da IBANA?

IBAN kode berria CCC kodean oinarrituta dago: kontuaren herrialdea identifikatzeko bi hizki gehitu zaizkio –ES Espainiaren kasuan– eta bi zenbaki. IBANak, beraz, 24 digitu izango ditu; CCCak 20 zituen.

Mutualista naizen aldetik, zer egin behar dut?

Kode hori banku-erakundeak emango dizu; hainbat bide daude: bankuko laburpenak, banka elektronikoko aplikazioak, taloitegiak, libretak, etab. Aurrekoetako ezein ez badaukazu zure banku-kontuaren IBAN kodea zein den jakiteko, Espainiako Bankuaren aholkua da erakundera bertara jotzea, kodeak galdetzeko.

Eta gogoan izan, CCC kodea badaukazu, kode berria lor dezakezula. Horretarako, sar zaitez esteka honetan:

www.sepaes.es.